

## GERRA ZIBILA. IRAULTZA ETA IRAULTZAREN KONTRA. ATZERRIKO PARTE HARTZEA

### SARRERA

Porrot egin du estatu kolpeak, baina ez da garaitua izan eta honen ondorioz gerra zibila hasiko da, non bi alderdi guztiz kontrajarriak izango diren. Nahiz eta barne liskarra izan, bere nazioz gaindiko izaerak bere sorreran eta batez ere garapenean eragina izango du.

### 1.- IRAULTZA ETA IRAULTZAREN KONTRAKOA. ESPAINIA NAZIONALA ETA ERREPUBLIKARRA.

Gerraren ondorio zuzena. estatuaren suntsiketa izango da. 1936tik 1939ra bi zonaldeetan estatu politiko berri bat eratzen da, Ian hau gerrakoarekin bateratuz.

#### 1.1.- ESPAINIA NAZIONALA. BOTEREEN KONZENTRAZIOA ETA IRAULTZAREN KONTRA.

Espainia nazionalean errepublikako estatua bat batean desagertuko da. Gutxian bertze bat, guztiz ezberdina, antolatzen da, non ezaugarri adierazgarrienak boterearen kontzentrazioa, diziplina eta militarizazioa izango dira. Bertan nazional - katolizismoa izango da ideologi nagusia, hots, Espainia errepublikarraren kontrakoa, iraultzaren kontrakoa bihurtuz.

BOTERE KONZENTRAZIOA	ERREGIMENAREN INSTITUNAZIONALIZAZIOA
<p>Sanjurjok izan behar zen nazionalen zuzendaria, baina hiltzean ez zuen ordezko argirik utzi. Estatu kolpearean porrota ikusirik nahiz eta ez garaipena lortu, Defentsa Nazionalerako batzorde bat eratu zen, altxamenduan parte harturiko jeneral nagusienekin (Franco, Mola, Queipo de Llano, Cabanellas, Dávila eta Saliquert). Batzordearen lehenengo lana armadaren lehendakaria izendatzea zen, eta hau Francori egokitu zitzaion bere armadak Afrikatik buruturiko aurreratzea zela eta, aldi berean alemanek eta italiarrek begirunez zutelako eta kautoena eta gutxien ideologizatutakoa zelako. Bi gertakari eragina izango dute hurrengo pausurako: Toledoko Alkazarraren berreskurapen sinbolikoak eta herriak legitimatzeko antolaturiko manifestazioa (Falangek Caceresen antolatua) eta elizak (Salamanca gotzainaren pastoralaren zeinetan "erlijioa, aberria eta zibilizazioaren salbaziorako gerra gurutzada" aipatzen den). Horrela Batzarrak ejertzitoen jeneralisimoa izendatu zuen; berrikuntza Estatu eta Gobernu buru 1936ko irailean izendatua izan zutelarik.</p>	<p>Estatu botereak kontzentraturik zirela, Francoren ardura horiek sortzea izan zen; bi oinarri erabili zituelarik: indar politikoaren bateratzea, eta Ministro kontseilu bat izendatzea. Falangea, tradizionalistak (karlistak) eta CEDAko apurrak bateratu zituen alderdi politiko berri batean Falange Española Tradicionalista de las Juntas Ofensivas Nacional Sindicalistas, erabaki honen kontra agertu ziren guztiak epaitu eta fusilatuz, adibidez Falangearen arduraduna Manuel Hedilla.</p> <p>Armadaren zuzendaritza etorkizunean politikoa ere izango zela argi zegoen, Franco zeregin berria edo Mugimendu Nazionaleko lehendakari nagusia zen eta. 1938an Ministro Kontseilua izendatzean, argi ageri da etorkizunean gertatuko denaz; Francok legez beregain hartzen zuen ahalmen legegilea eta ministerioak, familia politiko ezberdinen artean banatzen zituen (militarrak, falangistak, teknikari independente baten bat,...) Hauen eginkizun nagusia erregimena ideologikoki antolatzea eta politiko eta administrari ezberdinez instituziok betetzea, ondorengo diktadura emango den modura.</p> <p>Gobernu honek Estatu berriaren instituzionalizazioa prozesu motelari hasiera eman zion: Fuero del Trabajo - non sindikatu bertikalak nagusitzen ziren eta Estatuaren ekonomian parte hartze zuzena, prentsaren legea - alde aurreko zentsura inposatuz, eta Hezkuntza ertaineko legea - Eliza katolikoari kontrola bermatzen zitzaielarik. Erregimen berriko oinarriak finkaturik zeuden. Ondoren diktadura garaian garatuko zirenak.</p>

## 1.2.- ESPAINIA ERREPUBLIKARRA

Errepublikar Espainia justu kontrakoa izango da. Botere kontzentrazioaren aurka, atomizazioa eta liskar politikoak, ordena eta diziplinaren ordeztasuna eta batzarren mugimendua, batasuna ordeztasunak, eta iraultzaren kontrakoa ordeztasunak garatzea.

### GERRA ETA IRAULTZA

Estatu kolpeak bi ondorio zuzen ekarri zituen: Giral gobernu buru izendatzea eta alderdi politiko eta sindikatuek armak banatzearen eskaera eta lorpena iraultzari aurre egiteko. Honekin armada tradizionala desagertu zen, zuzendari gehienek alderdi nazionalen bai zeuden. Aurretik milizia armatuak osatu ziren eta honen ondoren kolektibizazioak eta produkzio bide nagusien kontrola. Berez Fronte Popularreko gobernuan ez zen benetako iraultza soziala burutu, bereziki iraultza 1937ko ekainera arte eman zen baina altxamenduaren kontrako erreakzio bezala. Botere publikoaren oinarri normalak hondoratzean. 1936ko udan langileen botere berria sortu zen, aldi berean militarra, politiko, soziala eta ekonomikoa zelarik.

Estatuaren boterearen deuseztatzea eta lekuan lekuko sindikatuen botereen ugalketak iraultzaren etorkizun hurbila eragin zuen, gerra eta errepublika. Boterea deszentralizatu zen, atomizazioa inposatu zen eta ez zegoen botere zentralik dena koordinatu eta zuzentzen zuenik. Giralek ezin zuen armada eta zuzendaritza politikoa antolatu eta gerrako porroten ondoren, dimititzea erabaki zuen. Largo Caballerok ordezkatu ziolarik. Honek ohore sindikalista eta langileen politiko eta UGTko arduraduna zen. Largo Caballerok kontzentrazio gobernu antolatu zuen, sozialista, errepublikar, komunista eta nazionalista ministroekin, UGT eta CNTkoekin ere. Hortaz errepublikari fidelak ziren indar politiko guztiekin, guztiak altxamenduari aurre egiten ziotelarik. Gobernu programa bat egin zen zeinetan gerra irabazteak lehentasuna zeukan, iraultza baztertuz, armada erregularra antolatu, milizien militarizazioa, gerra industrien nazionalizazioa, gobernuaren autoritatea berrezarri, ekonomi jardueren zentralizazioa, jabetza txiki eta ertainaren defentsa, iraultza soziala moteldu eta alderdi politiko eta sindikatuen arteko lankidetzak bateratuz. Nahiz eta lorpen garrantzitsuak eman, batez ere armadaren berrantolaketa zuzendaritza bakar baten menpe eta Estatuak berriz botere guztiak bereganatu, egoera oraindik aurka zegoen.

CNT eta POUM gerrarekin batera iraultza garatzen zuten, nazionalistek ez zituzten gobernu zentralerako erabakiak indarrean jartzen, gainera armen gabezia oso larria zen Frantziako mugak itxirik zeudelako eta Afrikako armadak aurrera jarraitzen zuelako. Hau dela eta gobernuak Valentziara doa, Madril galdutzat emanez, baina Madril tente mantenduko da. Largo Caballeroren ohorea galduz eta komunistena ordeztasun igoz (armadan zuten papera, eta politikan hartzen ari zirena, batez ere Errusiako laguntzei esker). Hemen hasi zen krisia. sindikatuek gobernu sindikala nahi zutelako, alderdi politikorik gabekoa; hauek ordeztasun kontrakoa, guztiaren atzean gerra eta gerra-iraultza mamitzen zelarik. Krisiak azkenean eztanda egin zuen Bartzelonan maiatzean. CNT eta POUM telefonikako egoitza hartu zuten Kataluniako gobernuen aginduen kontra. CNT eta POUM eta komunisten arteko tirabirak armatuak dira, hots, gerra zibil bat gerra zibilaren barruan. Azkenean Generalitat inposatuko da, baina gertakizun hauen ondoren Largo Caballerok eroriko da eta komunistak aldiz ospea eta influentzia handituko dute.

### FRONTE POPULARRERA ITXULERA

Kontzentrazioko bertze gobernu bat eratu zen, Negrín sozialista buru zuela eta Prieto defentsa ministroa zelarik; sindikatuak kanpo zeuden. Beraien helburua barruko gerran erresistentzia mantentzea eta kanpokoa irabaztea zen. Gobernuak Largoren aurreko neurriei

bultzada eman zien, hots, armada erregularra sortzea, botere kontzentrazioa, ordena publikoa mantendu eta jabetza txiki eta ertaina errespetatu. Kritika gehien jaso zuen politika, zentralizazioarena izan zen; Iparraldea erortzean errepublika txikiagoa zen baina aldi berean bateratuagoa. Negrinen gobernuaren erorkera eta berarekin errepublikarena, bere helburu politikoetan porrot egitean datza, barruko defentsa kanpoan gerra ez galtzeko, nazioarteko bitartekaritza behartzeko. Nazioarteko bitartekaritzak porrot egin zuen Francok onartu ez zuelako eta Frantzia eta Ingalaterrak eskua sartu nahi ez zutelako. 1938ko irailean Municheko konferentzian bermatu zelarik. Beraz kanpo politikan arrakasta ez lortzean, gerran nagusitasuna edo zuzendaritza komunista eta militarren esku gelditu zen, bere influentzia gero eta handiagoa izan zelarik. Prieto eta Azañaren ustez gerra galdua zegoen, baina komunista eta militarrek kontrako ustezkoak ziren.

Egoera honetan Prietok gobernutik irtengo da eta Ebroko eraso hasiko da, bertze porrot militarrean bihurtu zelarik. Komunistak oraindik erresistentziarekin segi nahi zuten, Espainiako gerra munduko gerrarekin lotzeko itxaropenarekin, baina militarrek ez zeuden ados. Orduan Casado jeneralaren estatu kolpea izan zen, Besteiroren laguntzarekin errendizioa eta bakea negoziatzeko asmoz. Baina ez zen negoziatorik egon eta bai ordea errendizioa. Gerra estatu kolpe batekin hasi eta bertze batekin bukatzen zelarik.

#### ATZERRITARREN PARTE HARTZEA

Espainiako liskarraren sorreran 30. Hamarkadako demokrazien krisia eta totalitarismoen ugalketan -komunista eta faxista- datza. Gerraren garapenean bere influentzia erabakigarria izan zelarik.

ERREPUBLIKA ZUTEN HERRIAK	LAGUNDU	NAZIONALAK LAGUNDU ZITUZTEN HERRIAK	ESKU HARTZEAREN AURKAKO KOMITEA
Errepublika gehien lagundu zuen herriak Errusia izan zen. petrolio eta beharrezkoak zituen armak bidaliz (Espainiako bankuko urrezko erreserbekin ordainduak). Gerraren antolaketa taktikoan Errusiako aholkulariek paper garrantzitsua izan zuten baita, ere eragin handikoak aholkulari politikoak PCEn bidez beraien influentzia zabalduz. Andrés Nin erail zuten ere. Mexikok ere laguntza bidaliko du baina oso puntuala. Nazioarteko brigadek ordea laguntza itzela eskaini zuten gatazkarako unitateetan. Atzerriko boluntarioez osatuta zeuden, Europako eta Amerikakoak eta oso kontzientziatuak zeudelarik.		Kanpo laguntza gehien nazionalentzat izan zen. Alemaniakoa nagusia izan zen, bai zenbaki aldetik baita teknikoki ere. Anparagarriak aire zubia eta Condor legioa. Italiarrek emandako laguntza, tropak eta neurri txikiagoan armak. Portugalek ere lagundu zituen bereziki armak eta petrolio bere mugetatik sartuz. Portuges eta irlandar boluntarioak ere nazionalekin parte hartu zuten. Marokoko tropak ere parte hartu zuten, mertzenarioak oso beldurgarria eta ospe handikoak zirelarik.	Frantziak Errepublikarekin adiskidetasun handiak zituen, ingelesek ordez nazionalengan; beraiengandik Europako langile mugimenduaren zabalketa gelditzeko aukera ikusten bai zuten. Egoera honetan, bi potentzi hauek deitua, sortuko da parte hartzearen kontrako batzordea, inork laguntza ematea ekiditeko asmoz, eta bide batez gerra ez nazio artetzeko. Batzorde hau eratze bertzeko arrazoia, Hitler baretzeko, Ingalaterra eta Frantziak egindako ahaleginetan koka daiteke. Batzarrak ez zuen lortu bi alderdiek kanpoko laguntzak ez jasotzea.